

Zumaiako herri aldizkaria


2001eko ekainak 1

BALAIKE

200 pta.

84. zenb.

in.com



**Jon Ander eta
Itziar Garcia**

interneten aurpegi absurdua

Juan Belmonte, 29 behea
tel.: 943 86 15 45
faxa: 943 86 17 42
email: baleike@topagunea.com

Argitaratzailea
BALEIKE KULTUR ELKARTEA

Administrazio batzordea
Esther Etxeberria
Xabier Azkue

Erredakzioa batzordea
Esther Aizpurua
Eguzki Agirrezabalaga
Antxoka Agirre
Juan Luis Romatet
Josu Waliño
Gorka Zabaleta

Koordinatzailea
Juan Luis Romatet

Kazetariak
Antxoka Agirre
Xabier Aizpurua

Marrazkigilea
Jon Manzisidor

Kolaboratzaileak
Miriam Romatet, Xabier Aranguren,
Jon Maia, Jon Sudupe, Esti Esteibar,
Dani Carballo, Joxe Mari Llavori,
Inaxio Tolosa, Inaxio Manterola,
Belen Golmaio, Izaga Garzia, Haize
Galarraga, Koldo Landaluze, Beñat
Fernandez de Arroyabe, Luis Mari
Aizpurua, Ihintz Linazisoro, Jose
Manuel Gonzalez Aramendi,
Ludoteka, Natur Taldea

Argazkiak
Baleike, Euskaldunon Egunkaria

Publizitatea
Esther Etxeberria

Diseinua eta maketazioa
Argi Aizpurua

Hizkuntz zuzenketa
Imanol Azkue

Banaketa
Andoni Ormazuri
J.J. Aizpurua

Publizitatea
943 86 15 45 tel. (Esther)

Inprimategia
Antza Inprimategia
(Lasarte-Oria)

Tirada
1.000 ale

Lege gordailua
SS-405/94

ISSN
1136-8594

Baleikek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esan-en eta iritzien erantzukizunik.



6 ze berri?
Ziklo berritzaileak Institutuan

8 ze berri?
Zumaiaiko haurrak Santanderren

18 olarro zopa

20 kirolak
Oier Aizpurua 3. Mundialean

21 Kirolak
Zumaia Gipuzkoako txapeldun

26 Literatura orria


Gehigarri berezia
Munduan zehar bidaiatzeko gida



Argitalpen honen edizioko laguntzaile:



Zumaiaiko Udala



Hauteskunde ondorioak

Amaitu berriak dira hauteskundeak. Ondo baino hobeto ezagutzen ditugu emaitzak. Analisi, hausnarketa eta balorazio ugari egin da harrezkero. Nire aldetik, hiru ondorio nabarmenaraziko nituzke, batez ere.

1.- Moderazioak irabazi du. Muturreko joerek porrot egin dute. Erdizaleak gara euskaldun gehienok, pragmatikoak eta kontserbadoreak, hitzaren zentzurik onenean. Mendebaldeko herrialde aurreratu bat da gurea. Inoiz baino hobeto bizi gara, eta inork gutxik nahi du abentura zororik. Daukagun autonomia maila indartu eta areagotzea gustatuko litzaiguke. Bidezkoa dirudi, beraz, Konstituzioaren eta Estatutuaren irakurketa ausartagoa eskatzea.

2.- Abertzaletasunak irabazi du. Hala ere abertzaleen eta ez abertzaleen arteko aldea ez da horren handia izan. Alderdi soberanistak nagusitu dira eskainutan, baina alderdi estatutistek ere aurrera egin dute bototan. Agerian geratu da berriz ere euskal gizarteko pluraltasun kultural eta politikoa. Politika integratzailea egitea dagokio, hortaz, gobernu berriari, euskaldunon artean sakoneko hausturarik gerta ez dadin.

3.- Demokraziak irabazi du. Askatasun osoz egin ahal izan du bakoitzak bere aukera. Eta indarkeria gaitzetsi du gehiengo handi batek. ETAren biolentziak, halere, bere horretan jarraitzen du. Entzunger egiten dio herriaren nahiari. Bizitzeko eskubidea behin eta berriz urratzen du. Jende asko dago mehatxupean bere ideia politikoengatik. Argi dago, beraz, bakeari eta askatasuna berreskuratzeari eman behar zaiola lehentasuna.

Aurrera begira, esperantza izpi bat ekarri digute maiatzeko hauteskundeetako emaitzek. Orain herriaren erabakia onartzea dagokigu guztioi. Zoritxarrez, ETak mespretxatu egin du beti bezala herritar gehienon borondatea. Elkar hartuta, indarkeriari aurre egitea da demokrata guztion eginkizuna.



Jon Sodupe



dekorazioa
ALBERDI



696 726188
943 143261

- Eskaiola
- Pladur-a

Alberdi
Gizonezkoen moda



Erribera kalea, 6
Tel. 861155



ALGORRI TABERNA
ERRIBERA KALEA 2 - ILMUJA 943 862543

Odieta auzoko etxeak

Zumaiako herritarrek jakingo duzuenez, gure herrian hirigin-tzako hainbat proiektu aurrera eramateko prest dago Udala. Horietako bat frontoia bota eta plaza handitzea da, eta bide batez, pilotaleku honen atzealdean dauden etxebizitza guztiak bota eta berdin-berdinak eta berri-berriak izango liratekeen beste batzuk eraikitzea.

Udalaren esanetan, horrek guztiak ez luke 'animo de lucro' izango baina Otoloran eraikiko den frontoi berria ordaindu beharra dago. Proiektu honekin, zoritxarrez, ez da ezertako auzoaren antzintasuna eta historia kontutan hartzen (Odieta kalea XVII. mende aurrekoa da eta bota nahi diren etxe horien egitura ere bai) eta ondo dauden etxeak ere suntsitzeko asmoa dago. Horrez gain, Udalak ez du argitzen auzokoak zein egoeratan geratuko liratekeen. Proiektua onartu ondoren, atzera botatzerik ez dagoenean, orduan hitz egingo omen da. Kontuan izan beharko litzateke, halaber, etxe berri horiek ez luketela babes ofizialik izango, eta, beraz, auzoko gehiengoaren kanpo geldituko lirateke.

Zoritxarrez, proiektuaren lehenengo fasea Udal Plenoak onartu eta aurrera jarraitzea erabaki du, auzokoek eta hainbat elkarte egindako alegazioei jaramonik egin gabe. Auzokook Udalari berriro ere proiektu honekiko desadostasuna eta beste alternatiba batzuk aurkeztu dizkiogu, auzo guztia birrindu eta ondo dauden etxeak botatzea suposatuko ez luketen alternatibak, hain zuzen. Orokorrean, etxebizitzak eraikuntza eta frontoi berria eraikitzeke proiektua desberdindu ditzala, pilotaleku berria eraiki daiteke dagoena mantenduz. Arazoa dirua lortzea baldin bada, etxe berriak frontoi atzeko lursailetan egin daitezke, auzokoen etxeak bakean utziz. Horrekin batera, Udalari gure etxea berriztatu eta egokitzeko asmoa azaldu diogu. Soil-soilik, hauxe eskatzen dugu: gure eskubideak eta etxebizitzak errespetatzea eta mantentzea.

MARI PAZ ANTIA ETA 25 SINADURA GEHIAGO

1, 2, 3-4... BABIRULAU

Aurten ere bai! Zumaiarrak... estropetan... irabazi... txanpan!! Elantxobeko lagun bati aitortu nion lehengoan: poza ematen du zumaiarrak irabazten ikusteak, baina poza zoriontasun bihurtzen da oriotarrei aurre hartzea lortzen denean. Oriotarren artean iaz Kontxan ibilitakoak omen ziren arraunean, punta-puntako mutilak, baina gureak ere ez izan badaezpadakoak! Indarra lepo omen dago trainerilla gorrian! Zorionak!

Euskadiko txapelketan ezin izan dute irabazi, baina arraunzaleon artean esperantzaren argia piztu du Getarian lortutako garaipenak. Aurrena traineruen ligan aurrean sartu, trapuren edo beste inguratzen saiatu eta gero gerokoak. Aita Marik lagun gaitzala!!

Noiz arte Mayor Oreja?

Hauteskundeak izan baino aste batzuek lehenago herriko (eta Euskal Herriko) telefono kabina guztiak Jaime Mayor Orejaren aurpegiarekin apainduta esnatu ziren. Madriletik etorritako "euskal gizartearen salbatzaile" hau gogoan ez dugunok egunero ikusi behar izan dugu bere aurpegia, eta hauteskunde kanpainen murgilduta geundenez, zibismo osoz eutsi diogu kabina hauek erretzearen tentazioari. Ba al dakizue zer gogorra den telefono dei bat egin behar, eta irudi hori muturraren aurrean eduki beharra? Neskalaguna edo mutil-lagunari deitu, eta Francoren oinorde den pertsonaia faxista hori aurrean izan beharra? Ba hori, hauteskundeak pasa dira eta gu gustura espainiar eskuin muturraren mutur zikin horrek jaso duen zaplateko itzelagatik. Hala ere, bi astetara, hara non segitzen duen 'Belarri Handi' maltzurak herriko telefono kabina denetan. Badakigu, Isabel San Sebastian anderea eta Brunete mediatikoari koloreak igo eta plazer zirrarak eragiten diela Papa Pituforen irribarreak, baina mesedez, hauteskundeak pasa dira, guri ez digu inongo plazerrik sortarazten, eta behingoz kendu dezatela gizarajo horren aurpegi itsusia. Hala bedi!

R.M. AIZPURUA

INMOBILIARIA



Julio Beobide, 3 behea 943 86 23 01

ANA



Ignacio Zuloaga enparantza Tel. 943 861157

EGOKI



Erloju eta bitxidenda

E. Gurrutxaga plazan



Gizartearen aldaketetara egokituriko zikloa Zumaiako Institutuan

“Hozkailua ireki eta ikusi besterik ez dago”, esan du ziurtasun osoz Iratxek. Aitziberrekin batera, Iratxe irakasle da Zumaiako Institutuan, eta aurrez prestaturiko janarien mundua jorratu eta irakasten duen erdi mailako zikloaz hitz egiten aritu zaizkigu biak. Orain urte batzuk ezarri zuen Institutuak ziklo berri hau, bere aldeko apustu garbia egin eta gero; izan ere, Gipuzkoan lehena eta bakarra baita honakoa. Interesatuta dagoen orok matrikulazio epea irekita dauka.

Teoria eta praktika

Erdi mailako ziklo honek bi adar ditu: batetik, goizez eta urtebetekoa; bestetik, berriz, denbora gutxiago duen jendearentzat arratsaldean egiten dena, baina bi ikasturtekoa. Biak ala biak ere teoria eta praktika lantzen dituzte, bakoitzari dagokion garrantzia emanez. Eskola teorikoetan aurrez prestaturiko janarien ingurua jakin beharreko gauza asko ikasten dituzte: lehengaiak, kontserba modu ezberdinak, higiena, makinaren mantenimendua, bilategia ongi egoteko beharrezko fakturazioak, e.a.

Baina ziklo honetako zatirik aipagarriena praktikarena da. Izan ere, janarien eraldaketarako prestaturik duten gunean barazkiak, arrainak eta haragia oinarritzat harturik ahalik eta jateko mota ezberdin gehien egiten baitituzte. Mota guztietako errezetaz gain, azken denboraldian sarturiko makineria berriarekin orain arte egin ezin zitzaketen produktuak egiten dituzte. Horren adibide dira ketuak (ahumatuak), eta Aitziberrek dioenez berdel ketua oso goxoa da. Makinei esker ekoiztutako beste jaki batzuk

hestekiak dira: txorixoak, saltxitxak, odolkiak... Beren prozesu guztia bertan egiten dute, baita lehorte prozesua ere, makina berezi batean. “Hemen ez dago estekiak ondo lehortzeko klima egokirik, eta makina honen bidez primerakoak gelditzen dira”, ziurtatu digu Iratxek.

Bestalde ontziratzeko gunea erabat automatizatuta dute; ordenagailu bidez kontrolatuta, makinak prozesu guztia katean egiten du. Ikasleek jakia sartzen dute, eta makinak ondoren olioaz bete, itxi, garbitu, esterilizatu, lehortu eta etiketatu egiten ditu. Teknologia berrietara eginiko egokitzapen argia da eta gaur eguneko industriara sartzeko prest egoten dira ikasleak.

praktikak egiterak

Nori zuzenduta dagoen zikloa?

“Edonori, edo nahi duen guztiari behintzat bai”. Goizez ikasteko betebeharrak bakarra OHO edo DBH gainditu izana da, eta arratsaldean berriz ez dago baldintzarik. Ikasketak amaitu eta lanean hasi nahi duenarentzat egokia dela diote, baita langabezia dagoenarentzat ere, formatu eta lan munduan sartzeko, industria mekanikoan sartu nahi ez eta beste bide baten bila dabilenarentzat alternatiba dela diote, Gipuzkoan lehena dela gogoratuz; azkenik, norbere negozio txikia jarri nahi duenarentzat ere aukera bikaina dela baieztatu digute. Etorkizuna, behintzat, ongi ikusten dute, inguruan alor honetako enpresa ugari sortzen ari baitira, eta harategiek-eta aurrez prestaturiko janari gehiago saltzen dutelako ere bai. Badakizue: matrikulazio epea irekita dago; edozertarako, Zumaiako Institutura hurbildu.

Arantza Aramendi

E G U Z K I
G. INMOBILIARIA

Harategi kalea, 15 behea
943 86 22 65 - 609 46 56 37

Galdona

burdindegia

Mendaro marinela, 1 Tel. 943 861117
943 143346
Juan Belmonte, 15 Faxa. 943 861330

GANBARA

Taberna

Juan Belmonte, 5 Tel. 943 86 10 57



Herri Eskolako irratiak seinale-on

Euskadi irratiak irratsaio esperientzia berri bat burutu nahi izan du aurten ikastetxeetako irratiekin elkarlanean. Ikasleei irratia instalazioak eta funtzionamendua ezagutu eta irratsaio bat grabatzeko aukera eskaini diete. Irratsaio hauek Bilin-Bolon programan atera dituzte gero.

100 ikastetxetik gora animatu dira esperientzia berri hori probatzera eta guztira 3000 ikasle baino gehiagok hartu dute parte. Maiatzaren 26an Bilboko 'Bilborock' aretoan ospatu zen Bilin-Bolon jaian aurrez aukeraturiko 10 finalistek zuzeneko programa bat egin zuten eta emanaldiaren bukaeran, ezustekoa!, Zumaiako Herri Eskolako irrati txikiari aho batez eman zioten lehen saria. Musika eta bertsoak izan ziren irratsaio sarituaren oinarria.

Aukeratzen hasita irakasleek nahiago omen zuten bigarren saria, irrati tresneria berri-berria, baina ikasleek ez zeukaten inolako kexarik Port Aventura-Salourako 25 lagunentzako lau egunetako bidaiarekin.

Bigarren urtea dute Herri eskolan irrati tailerrarekin. Hautazko gaia da eta 24 lagun ibiltzen dira Julene Azpeitiatik jaso zuten tresneriarekin jolasean. Irratsaio arrakastatsuen ostegun eguerdietan ordubata eta erdietatik 2.30etara egiten duten lehiaketa da. Inguruko denda eta banketxeek gero eurak irratsaioan egiten duten publizitatearen truke emandako sariak (mikroonda berri bat, mantak etab.) banatzen dituzte eta joan den ostegunean 32 dei izan zituzten. Astelehen eta ostiraletan goizeko bederatzietatik hamarretara ere egiten dute irratsaioa. Musika, elkarriketak eta denetarik entzun nahi duenarentzat FM 107.9an dago Herri eskolako irratiak.

Sanpankrazioak 01

Joan den asteburuan ospatu ziren Estazioko jaiak. Ekitaldi nagusia ostiral gauekoa izan zen. Nidel zumaiarren eta Ekinozio eibartarren kontzertua lehenengo, eta ondoren, azkenaldian hain modan jartzen ari den Dj festa. Auzoko mutil bat, '16 valvulas' izenarekin aritzen dena, eta Santelmotan ere kontzertua eman zuen Axular izan ziren Dj-ak. Bukatzeko Uli-k erakustaldia egin zuen tinbalekin.

Gainerakoan txosna, giro ona eta ohiko martxa Sanpankraziotan.



Itzurunen ona eta Santixon onargarri

Eguzkia indartsu jotzen hasi da, udako arropak eta bainujantziak jaitsi ditugu ganbarako poltsetatik, eta hondartza azpeitiarrez beteta topatu dugu.

Uda usaina hartzen hasiak gara, bada, eta Europako Batasunak ere egun hauetan kaleratu berri du hondartzetako uraren kalitatearen inguruan urtero egiten duen txostena. Bertan jasotzen denez, oro har uren kalitateak hobera egin du joan den urtetik, eta gure inguruan Orioko Oribarzar eta Mutrikuko Saturraran dira bainatzeko txar bakarrak. Hondarri-
biako hondartza eta Donostiakoak, berriz, urteetan arazoak izan dituzte, baina aurten egoera onean daude.


Zumaiako hondartzei dagokionez, Itzurungo uren egoera ona dela dio eta Santiagokoa onargarria. Aprobetxa, beraz.



Era guztietako instalazioak etxebizitza, pabilioi eta herriko argietan

Trenbide 5.pabilioia Tel./Faxa: 943 143402

TAILERRA: Estazioko kalea, 23
Tel. mugikorra: 608 143409



Zumaiako haurrak Santanderren



Maiatzaren 14tik 18ra, Zumaiako Institutuko sei ikasle Santanderren izan ziren, Inaxio Manterola irakaslea gidari zutela. Bertan Haurrentzako 1. ingurugiro kongresua izan zen, Kantabriako gobernuak umeek ingurumenari buruz hitz egin zezaten antolatu zuen topagunea. “Hitz egin dezatela haurrek!” zen bertako leloa, eta horren inguruan bildu ziren lau egun hauetako ekintza eta jardunaldiak ere. Espainiar estatuko eskoletatik etorritako partehartzaileak zeuden bertan, eta baita Euskal Herritik joandako beste lau ere: bi Nafarroatik, bat Bizkaiatik (pribatuak hirurak), eta Gipuzkoatik joandako ordezkari bakarra, Zumaiako Institutu publikoa. Kongresuan, guztira, 57 eskola ezberdinetatik etorritako haurrak zeuden, 71 irakasle eta 425 ume. Bilgune garran-

tzitsua beraz Santanderrekoa. Zumaiako protagonistak, honakoak: Iker Manzidor, Lorea Zabaleta, Unai Rubio, Aitor Vela, Maitane Cabezas eta Naiara Bonail. Guztiak ere DBHko 4. mailakoak, 15 eta 16 urteko gaztetxoak. Beraiek eginiko lana Zumaiako Institutuak ingurugiroarekin duen proiektua azaltzea zen: “Gipuzkoako Kostaren Ikerketa” zen azalduko proiektua. Bertan hondakin solidoak jasotzeko urtero egiten den AzterKosta proiektua, ibaietako metal pisutsuen presentzia, eta bainuguneen egoera eskasa azaldu zituzten. Azalpenak modu errezagoan ulertzeko, CD-ROM bat egin zuten lantaldean eta kostaldearen irudi adierazgarriak erakutsi zizkieten bertaratu ziren guztiei.

Talde bakoitzak 10 minutuko denbora zuen proiektua azaltzeko, eta bata

bestearen atzetik guztiak entzun zituzten lau egunetan. Goizeko 8:00tan jaiki eta gelditu gabe ibili ziren egunotan, “bazkaltzeko gelditzen ginen, juxtu-juxtu” dio “Mantak”. Lau izarreko hotelean zuten ostalua, gosalduta eta martxan jartzen ziren egunero. Goiz guztian zehar eskoletako proiektuen azalpenak zeuden, guztiak haurrek beraiek azaldukoak, eta gehienak irudiz lagunduak. Bazkaltzeko gelditu eta gero, lanari ekiten zioten berriz ere, eta arratsalde guztia espreski prestaturiko tailer eta esperimentazio lekuetan igarotzen zuten. Edo bestela autobusera igo eta inguruko erreserba naturalak ikustera joaten ziren. Bidaia guztia ordainduta zuten, baina ondo pasatzeaz aparte “lan ugari egin dugu eta asko mugitu gara” dio Inaxiok.



Taldearen iritzia

“Ikasleei hitz egiten uzten digutenean dibertigarriagoa da”

Eurak izan dira lana egin eta Santanderren aurkeztu dutenak.

DBH 4. mailako sei ikasle biologiako klasean ibiltzen direnak.

Egin dutena azaltzeko ere eurak dira egokienak.



Nola aukeratu zintzuzteten Santanderra joateko?

Unai. Biologiako gelakoei maisuak egin zigun proposamena. Joan nahi zutenen artean zozketa egin zuten eta guri tokatu zitzaigun.

Eta, gustura ibili al zarete?

Maitane. Oso gustura. Egia esan, hotela eta konferentzien artean pasatu dugu denborarik gehiena, baina Santander oso polita dela ikusteko denbora izan dugu, behintzat. Oso hondartza polita dauka. Gero, jende asko ere ezagutu dugu, igual hori izan da onena. Hotelean 427 ikasle geunden. Iker. Hotela lau izarrekoa zen, eta beroagatik lo askorik egin ez

badugu ere, luxuzko oporrak izan dira.

Zer iruditzen zaizue ikasleek emandako hitzaldien formula?

Lorea. Ona. Horrela guk ere gauza hauetaz hitz egiteko gaitasuna daukagula ikus daiteke. Gainera, askatasun guztia eman digute lanerako.

Taldearen iritzia

Zer moduzkoak iruditzen zaizkizue gainontzeko taldeen hitzaldiak?

Aitor. Denetik egon da. Batzuk aspergarriak ziren eta beste batzuk kurioak. Esate baterako, Tarifako batzuk oiloen erreproduzioaz aritu ziren eta oso interesgarria zen.

Lorea. Beste batzuek eurek egindako kosmetikako produktu naturalak ekarri zituzten, xaboiak eta olioak, eta prozesu guztia esplikatzen zuten.

Zuek zein lan eraman zenuten?

Naiara. Joan den urtean Azterkosta programa egin genuen. Herriko kostan bostehun metrotik bostehun metrora ikerketa puntuak jarri genituen eta puntu horietako bakoitzean Jauralaritzak bidalitako inkesta bat bete genuen. Flora, fauna, lurzorua, hondakin materialak, uretan zeuden metal astunak e.a. Azterketa horien ondorioak aurkeztu ditugu Santanderren.

Zein dira ondorio horiek?

Iker. Kosta oso zikinduta dagoela eta zerbait egin behar dela hori konponitzeko. Batik bat egurra eta plastiko zaharra topatu dugu, baina bestelako kutsadura ere dezentekoa da.

Maitane. Gauza kurioak ere topatu genituen: izurde bat eta dortoka handi bat, eta baita Kanarietatik etorritako kutxa handi bat ere.

Zer proposatzen duzue kutsadurari aurre egiteko?

Aitor. Daukagun kosta zati hau zaintzea eta okerrago behintzat ez jartzea. Birziklapena garrantzitsua izan daiteke.

Egindako lanak probetxurik izango al du?

Unai. Europa guztian egiten dira azterketa hauek eta gero txostenak Dublinera bidaltzen dira. Guk ere bidali genuen. Dublinden ondorio batzuk ateratzen dituzte eta duela egun gutxi atera dira egunkarietan; zer hondartzatan bainatzea dagoen eta hori guztia.

Maitane. Hitzaldia berriro Oxforren emango dugula uste dut, euskaraz.

**ALTZARIAK
OSTOLAZA
AROSZTEGIA**




Mota guztietako altzariak eta aroszategi lanak

Julio Beobide, 1
TEL: 943 861325

SATIA
taberna

ORTEGA Y GASSET, 3 943 860151

**B. Etxegarai 2, behea
943 86 27 14**



GAZTEEN ERROPA

Merezitako sari bati buruzko 11 galdera

Aurreko Baleikearen bitartez jakingo duzuenetz, Itziar Garciak eta Jon Ander Garciak lehendabiziko saria irabazi dute aurtengo Gipuzkoako artista berrien lehiaketan. 39. aldiz antolatu dute Gipuzkoako Diputazioak eta Kutxak 30 urtetik beherako gazteentzako lehiaketa eta irabazleen artean artista oso ospetsuak daude, adibidez, Oteiza, eta Zumaiarren artean Beobide eta Balenziaga pintore arrotarra. Orain dela bi urte (bi urtetik behin egiten baita) Jon Manzisidorrek 3. saria irabazi zuen eta aukeratutakoen artean Aran Santamaria eta Jon Ander eta Itziar beraiek zeuden.

Ismael Manterola



Aurten ere bi ziren aukeratutako zumaiarrak, Unai Gabilondo eta Jon Ander Itziarrekin batera. Azken horiek aurkeztutako In.com lanak jaso zuen miloi eta erdiko pezetako lehendabiziko saria.

Jon Anderren urtebetetze eguna zen zapato goiz eguzkitsuan geratu ginen Txiringitoko tabernan elkarrizketa egiteko. Erraza da bikotearekin hitz egitea, ez diote elkarri trabarik egiten erantzuteko orduan, hitzunak eta desiatzen egoten dira beraien lanari buruz hitz egiteko konplikazio gehiegi gabe; horregatik, elkarrizketa izan behar zuena azkenean edozein egunetan arteari buruz egiten dugun hizketaldi bihurtu zen eta horrek gero idazteko arazotxoak eman zizkidan.

Lehendabiziko galdera sariaren ingurukoa izan zen. Badakit poza ematen duela sariren bat irabazteak eta gainera horrenbeste dirukoa bada gehiago, baina prestigio handiko saria irabazteak zerbaitetan lagun diezaiekeen jakin nahi nuen.

Jon Ander. Aurrera jarraitzen laguntzen du, animoak ematen dizkizu, hainbeste lan eta hainbeste ordu sartu eta gero. Ilusioa egiten du zure lana errekonozitzea. Maila handiko lehiaketa da guretzat eta, beraz, asko laguntzen du.

Hala ere, orain jende askok galdetzen digu “eta orain zer?”, baina ez dakigu hemendik aurrera zer gertatuko den, ateak zabalduko diren-edo, ikusteko dago oraindik.

Itziar. Tradizio eta prestigio handiko lehiaketa da, baina Oteiza eta besteak irabazi zutenean gazteak ziren eta ez zuten oraindik gero egindako lana egin. Gu ere hasieran gaude eta ikusteko dago. Bizitza osoan egindako lanaren bidez baloratzen ditugu, baina garai hartan ez ziren ospetsuak.

Sariak ez du erabakigarria izan behar aurrera jarraitzeko, baina animoak ematen ditu eta laguntza ekonomiko ona da.

Lehiaketak laguntzen duela ezin uka, baina azken garaian eztabaida handia dago arte lehiaketen inguruan. Egokia iruditzen al zaizue edo zerbait aldatu egin beharko litzateke?

J.A. Arte sorkuntza aldatzen den bezala, lehiaketa ereduak ere aldatu egin beharko dute. Adibidez, oso arraroak dira gaur egun eskala hierarkikoaren arabera banatutako sariak, lehena, bigarrena eta hirugarrena, diru kopuru berdineko 3 sari egokiago izango litzateke, edo sari gehiago eta diru gutxiago, banatuago. Beste sari batzuetan, artisten lanari jarraipen handiagoa egiten zaio. Hala ere, aldatzen ari da, adibidez neska batek katalogorako orri bat diseinatu du, guk postal free edo interneterako gauzak. Lehiaketak arte sormenari moldatu beharko zaio.

Akordarazten diet antolaketa arazoak izaten direla eta orain dela bi urte Jon Manzisidorren zapatilak erakusteko eman zizkien buruhaustea eta sarritan arteak zalantzan jartzen dituela erakusteko eta ikusteko erak.

J.A. Lortu dugunarekin oso kontentu gaude, emaitzari begira ondo geratu dela iruditu zaigu, baliabideak kontuan izanda. Interneteko gauzak erakustea oraindik ez da erraza eta...

I. Eta aurrekontu arazoak ere hor daude. Ezin dugu nahi duguna egin.

J.A. Hala ere, garbi geneukan zer nahi genuen eta aurrekontu arazoez ez zutela gure lana mugatuko, moldatzen saiatu gara.

Aukeratutako bi lanen artean In.com izenekoak jaso du lehen saria, nahiz eta gehienetan egiten duzuenarekin harreman handiegirik ez izan. Zerekin identifikatzen zarete gehiago, Desira izeneko plastikoa

handiarekin edo azken teknologiei esker egindako lanarekin?

J. A. Momentuan momentukoari heltzen diogu, materialak ez gaitu kezkatzen.

I. Ez dugu aurretik jartzen teknologia erabili beharra, ideia aurrera eramateko behar dugun teknika erabiltzen dugu. Asmoetatik abiatzen gara. Gainera lanak ez du interneti buruz hitz egiten, bi pertsonen arteko komunikazioa eta inkomunikazioari buruz baizik. Badu bestearekin harremana, zerbaitetara iritsi nahi duzula eta ezin.

In.com lanean Mikel Laboaren komunikazio-inkomunikazio kanta erabili dute tekno itxurako musikarekin nahastuta. Mikel Laboaren kantaren bertsio moderatizat har daiteke?

J.A. Laboa gustatzen zaigu eta Orbital ere bai, ez dugu aukeratu behar, dena nahasten dugu aurreiritzirik gabe.

I. Interesgarria egin zitzaigun prozesuko lana. Ciber kafetan egindako interbentzioak, e.a., espazio horietan zer aurkeztu edo nola aurkeztu artelana. Aretoak kontuan hartu handik abiatzeko lan artistikoan. Desira lanean ere aretotik kanpo ateratzea interesatzen zitzaigun.

J.A. Bai aukera bikaina da guretzat Koldo Mitxelena bezalako espazioan lan egitea edo erakustea.

J.A. In.com lanaren prozesua da interesatzen zaiguna eta prozesuak ez du amaierarik, oraindik martxan dago. Eskuko telefonoarekin asko ibili ginen garai batean eta handik hasita Ciber kafeetan bideo konferentziak egiten hasi ginen, jolas moduan, eta hortik ideia nagusiarekin lotutako lan paraleloak: flyer-ak, metro gutxira zeuden Donostiako bi Ciber kafe kontaktuan jarri, Bartzelonako Ciber kafeetan ere bai, web orri bat... Prozesuak garrantzi handia du, proiektuak...

Beti izan duzue proiektu baten gauzatze ezberdinak. Ideia baten inguruan artelan ezberdinak, hasiera eta bukaeran antza handirik ez daukatenak, gainera.

J.A. Bai, aberasgarria da, gure arteko komunikazioa nolakoa den, gauzak nola aldatzen diren...

ZALLA

Taberna - Erretegia

* *plater konbinatuak*
* *otartekoak*
* *oilasko erreak*

San Pedro, 4

Tel. 943 862387



Zerbitzu Ofiziala

ZUMAIA MOTOR

Santxo auzoa, 22

Tel./Faxa: 943 143143

AMETZA

taberna

Santiago auzoa, 4
tel: 943 143370



Azkue Autoak

Tel: 943 861433
Estazioko kalea, 19 Faxa: 943 861067



**ALBAITARITZA
KLINIKA**

MIREN SAN SEBASTIAN BARANDIARAN
DIEGO SAN SEBASTIAN BARANDIARAN
INAKI GARMENDIA MENDIZABAL

-ALBAITARIAK-

Basadi, 7 behe
Tel. 943143310
Tel. mugikorra: 608- 775508

ategunak: 8:30 - 10

Larrialdia
- 24 ordu
- zeure etxean

Ohizko tratamenduez gain:

**CORO
PRIETO**
Esteticista

• Laser bidezko depilazioa
• Mikropigmentazioa
• Tatuajeak

Bonifazio Etxegarai plazatxoa z/g Tel. 943 861322



I. Erakargarria eta nekagarria. Bi mutur hauek tentsioa sorrarazten digute. Beti dago aldaketaren bat, behin ere ez dago bukatuta, azken momentua arte aldaketak edo hobekuntzak egin daitezke eta nekagarria da. Askotan lan bat enbalatuta edukitzea eta bidaltzea gustatuko litzaidake.

J.A. In.com lan honetan gure bizitza eta artea nahastu egin dira. Itziar Donostian zegoen eta ni Bartzelonan, eskuko telefonoz konpondu behar izan ditugu gauza asko.

I. La realidad supera la ficcion.

In.com lanean hartzeko postal free delakoak daude bion aurpegiaren nahasketarekin egindako hibridoaren erretratua-rekin. Zein da hor azaltzen dena? Elkarrekin lan egiteak eta bizitza konpartitzeak norainoko bateratasuna sortzen dizue?

J.A. Sei urte elkarrekin Arte Ederren Fakultatean eta 3 urte eta erdi eskultura espezializazioa aukeratu genuenetik, ordutik elkarrekin egun guztian, iritziak ematen, azkenean horrenbeste nahasten ginen, pentsatu genuen errazena elkarrekin lan egitea izango zela.

I. Elkarrekin lan egiten duen jende askok lana banatzen du, negoziatu.

Gure kasuan batek A esaten du, besteak B eta azkenean C-k iritziak du. Baina ez da horren arraroa, bakarka lan egiten duenak ere beti jakin nahi du jendearen iritzia eta horrek aldaketak edo eragina izaten du azken emaitzan.

J.A. Permeableak gara ingurutik jasotzen ditugun gauzen aurrean. Lanak eztabaidatzen ditugunean, ahoz esaten ditugu eta errazago da bueltak emateko.

Ikasketak amaitu dituzue Leioako Arte Ederren Fakultatean. Zer irtenbide dauka ikasketak amaitu dituen lizentziatu berriak?

J.A. Bartzelonan egon gara Filosofia Fakultateko graduatu ondoko kurtso bat egiten, burua gehiago nahasteko.

I. Iritzi ezberdinak aditzeko eta jakiteko.

J.A. Espazio publikoa eta hiri berrikuntzari buruzko doktoretza ikastaroa ere egiten ari gara.

I. Baina nabaritu dugu lanean hasi behar dela (harritu aurpegiarekin begiratzen diot, lana besterik ez baitute egin ikasten aritu diren 5 urteetan). Soldata duen lana esan nahi nuen. Horrek artea egiteko astia izango dugulako kezka eragiten digu.

J.A. Sariak eta dirua jaso ditugu arte munduan, baina kamarero moduan ere lan egin behar izan dugu. Nola uztartu bizitzeko lana egin beharra eta artean segitzea?

Ez gaude oso urduri, momentuan ez gaude gaizki eta gerokoa etorriko da.

Bartzelonan zer bilatu duzue?

J.A. Hiri handi bat, jende asko ezagutu dugu.

I. Oso dinamikoa da, nahi dugun guztia egiteko astirik ez dugu. Hona etortzen garenean oso lasaia iruditzen zaigu.

Baina interneten garaian artista batek kanpora irteteko beharra al du?

J.A. Oraindik esperientzia birtualak eta errealek ez dira berdinak. Komeni da irteeta.

I. Ez dago zertan kanpora irten ezagutzeko edo informatuta egoteko, baina jendea ezagutzeko bai.

J.A. Informazioa bezain eraginkorra da bizitza esperientzia.

Iraileko zuen erakusketa iragarrita dago Zumaian, Udako Arte Erakusketaren barruan. Zerbait pentsatuta al daukazue?

J.A. Leku berezia da, eta lekuari egokitutako erakusketa izango da, bertarako eginda. Ideia batzuk baditugu.

I. Lekura joan eta bertan pentsatu behar dugu, horrela egiten dugu lan.

J.A. Orain arte ez dugu erakusketarik egin Zumaian eta gogoia dugu, gainera, Oxford oso leku polita da, ez da ohiko lekua eta erronka da zerbait jartzea.

Zumaiaiko artearen egoerari eta Oxforren falta diren fokuei buruz hitz egiten jarraitzen dugu eta luzerako joko duenez, pintxo batzuk jateko garaia dela iruditzen zaigu.

Norbaitek artista gazte hauei buruz zerbait gehiago jakin nahi baldin badu, jo dezala sarean duten web orrira, helbidea: <http://www.in.com.8m.com>. Kontuz! w hirukoitzaren atzean punturik ez daukanez http eta bi / jarri behar dira.

Basadi Auzategia, 10 behea
Tel. 943 862051

S DORNUTEGI

**SUKALDEKO ALTZARIAK
ARMAIRU ENPOTRATUAK**

INPERNUPE
ELKARTEA

Erribera kalea Tel. 943 861523

ERTZ ORDENAGAILUAK
informatika CD-ROM INTERNET

Eusebio Gurrutxaga, 6
Tel. 943 14 33 95



zer irudituko litzaizuke Zumaian plaia nudista ezartzea



Maria Luisa Intxausti
Nik daukadan edadea-
rekin ez naiz
animatzen, baina
gazteentzako ona
iruditzen zait.
Gorputza erakusteko
modukoa daukanak
erakuts dezala



Jesus Etxabe
Gaizki, horrelakorik ez
deu beine izan
Zumaian eta ez deu
beharrik ere. Erropa-
rekin ere oso guapak
egoten dira neskak.



Joakin Elosua
Bestela ere nahikoa
ikusten deu



Ana Epelde
Ondo iruditzen zait,
baina beti ere jendeak
errespetatzen jakin
beharko luke.
Zarautzen badago
zona nudista eta ez
da ezer gertatzen.
Hemen ere zergaitik
ez?



Josu Uranga eta Inaxio Manterola
Ondo ez, beharrezkoa iruditzen zaigu, eta dena
nudista jarriko balute ere ez litzateke txarra
izango. Askoz sanoagoa da biluzik ibiltzea eta
baita praktikoagoa ere. Bainujantzia lehortzen
ibili beharrik ez. Dena den nahi ez duanarentzat
utzi beharko litzateke hondartza zati bat,
ezkutuan.



Auto-konponketak
ELKAR

Estazioko kalea Tel. 943 86 02 01



Gure txokoa

• taberna •

kaxuelita eta pintxo ezberdinak

Upela plaza, 4

tel: 943 860970

Sexualitatea

Ezkutuko maitasunak



Jokabide sexual guztietatik bi kritikatuak eta zigortuak izan dira: masturbazioa eta homosexualitatea. Biak gure mendebaldeko gizarteak baztertu ditu, biek ez baitute umerik

ekoizten gizarte kapitalista honentzat, beraz, sarketa ez zen beste edozer gauza perbertsio sexuala zen. Sarketak, aldiz, bedeinkapen guztiak zituen. Arauen barnean zegoen.

Homosexualak garai batean Inkisizioak hil egin zituen. Gaur egun, ordea, apaizen tokia psikiatrek hartu dute eta zientziaren bidetik gaixotasun bezala definitu dute. Arrazoiak bilatzen saiatu dira, zenbaitek kromosomen arazoa dela diote, beste batzuk buruan izandako lesioren bat, etab. Jokabide hau "sendatzeko" elektro-shock-ak aplikatzeraino heldu dira.

Homosexualitatea, ordea, zibilizazioa bezain zaharra da. Betidanik eta kultura oso ezberdinetan gertatu da, Erromatar garaitik ditugu azarnak. Hainbat kulturatan, berriz, txikitatik praktikatzen den zerbait da.

Gure gizarteari, ordea, asko ari zaio kostatzen tabu hauek gainditzea. Badirudi gaur egun dena posible dela, askatasun gehiago dagoela. Baina kalean bi mutil nahiz bi neska muxu gartsu bat emanez ikusiz gero (batik bat gurea bezalako herri txikietan) jende askok kritikatu luke. Zergatik ezkutatu behar du inork pertsona batekiko bere maitasuna? Azterketa soziologiko batek dio, 3 pertsonatatik 1ek bere bizitzan zehar esperientzi homosexualak izan dituela. Beraz, ez da gutxi batzuen kontua. Zergatik emango diogu bizkarra orduan errealitate honi?

Inor ez da jaiotzen bere sexualitatea definituta (edota agian denok bisexual jaiotzen gara). Norberaren esperientzia da jokabidea definituko duena, edota baita ausardia ere. Beraz, ezin da esan jaiotzetik datorren zerbait dela, pertsona egin egiten baita. Gainera, azken finean, pertsona batekin (birekin...) maitemintzen gara, bere izateko erarekin, bere laguntzeko erarekin... Maitemintzeko orduan pertsona hori zein sexutakoa den ez du axola, ez baikara sexu organoez maitemintzen.

Kinseyk zioen zuria eta beltza ez dagoen bezalaxe, ez dagoela hetero eta homosexual "garbirik", tonu desberdineko grisak baizik. Beraz, zer duzun gogokoena aurkitu eta disfrutatzea besterik ez duzu.

Jose Manuel Gonzalez Aramendi. **Kirol sendagilea**

Kirol medikuntza

Dopajea



Gizakiaren edozein jardueratan bezala, kirolaren esentzia gure mugak gainditzea da. Konpetizioko kirola izango da, seguru aski, antzinako gizakiarengandik eta antzinako gizartetik datorkigun ehizarako eta gudurako sena adierazteko modurik egokiena. Egunerokotasunetik ihes egiteko edo aisialdirako modua, harremanetarako eta elkarbizitzarako beste elementu bat.

Baina hodei beltz bat zabaltzen ari da kirolaren gainean eta hodei hori gero eta jende gazteagoa harra-patzen ari da. Substantzia dopanteen gehiegizko erabilpena, lehen goi mailako kirolean salbuespen bat besterik ez zena, orain poluzio olatu bat bezala ari da iristen afizionatu mailako kirolera eta laster jubenil mailara ere iritsiko da.

Ezin ditugu gure gazteak dopatzera zigortu lehiaketan jardun ahal izateko, edo jendaurrean barregarri ez geratzeko. Eta, halaber, ezin ditugu onartu kirolarien osasuna edo kirolaren beraren balioak arriskuan jartzen dituzten garaipenak.

Bada garaia kirolaren munduan eta gazteen heziketan nolabaiteko ardura dugunok (federazioko agintari, entrenatzaile, kirol zuzendari, mediku, kirolari, guraso, hezitzaile, laguntzaile eta kazetariak) arazo honi behar bezala aurre egiteko.



- Material guztietako leihoak:
- PVC, poliuretano, aluminio eta egurrezkoak
- Armairu enpotratuak
- Tarima, ate eta era guztietako persianak
- Lanen zuzendaritza

Bezeroak gustura uztea da gure helburua

Itzurun zuhaitzbidea, 2 943861565 - 943143446



TXOMIN AGIRRE. z/g
TEL: 943 865369

KAIA
Kafetegia



amaia plaza, 2
Tel. 943 143278

Maite
ileapaindegia



Beñat Fernandez de Arroyabe. **Sukaldaria**

Sukaldaritza

Txahal buztana

Osagaiak (lau lagunentzat):

- 1500 g-ko buztana.
- Tipula 1
- 2 azenario
- Porru 1
- Tomate helduak
- Baratzuri ale 1
- Oliba olio (1 dl)
- Ardo zuria (2 kopa)
- Haragi salda (3 dl)
- Piperbeltz beltza (4 ale)
- Gatza

Nola egin:

Kazola bat jarri su bizi-bizian eta bota olio eta baratzuri alea (osorik). Ondo gorritutakoan, atera eta bota buztana (zatituta), gorritu arte. Orduan, jaitsi sua eta bota tipula, porrua, azenarioak eta tomatea, berdura guztiak zurituta eta txiki-txiki eginda. Utzi suezitzen ordu erdiz, noizean behin egurrezko espatula batekin eraginez. Ordu erdi pasatu-takoan, bota ardo zuria eta haragi salda, bota gatza eta piperbeltz beltza eta utzi egosten denbora luzez bigun-bigun egin arte.

Atera buztan pusketak kanpora. Hartu salda eta baratzkiak eta xehatu irabiagailuaz eta pasatu txinotik. Kazola batean, elkartu saltsa eta buztana. Atera aurretik, berotu bost minutuz eta kito.

OHARRA: Egosterakoan, likidua kontsumitzen doan neurrian, bota ur pixka bat, beharrezkoa balitz.

On egin!

Bidasoa Beheko enpresa batek **kazetaritza, publizitate edo marketingeko lizentziatua** behar du.

• Baldintzak:

Euskara eta frantseseko ezaguera.

Marketing, publizitate eta diseinu grafikoko ezaguerak.

• Eskaintzen da:

Urte bateko lan kontratua.

3.600.000 pezetako ordainsaria.

Urola Erdialdeko enpresa batek **enkofratzailea** behar du

• Baldintzak:

Enkofratzaile lanean esperientzia.

B1 gida baimena.

• Eskaintzen da:

2.500.000 pezetako ordainsaria.

Azkotiako enpresa batek **galderagilea** (kaldereroa) behar du.

• Baldintzak:

Urola Kostan bizitzea.

Industri galderagile lanetan 2 urteko esperientzia LHII mekanikoa edo soldadura.

• Eskaintzen da:

Kontratu mugagabea egiteko aukera

Azkoitiko enpresa batek **automaten programa-tzailea** behar du.

• Baldintzak:

Urtebeteko esperientzia.

Elektronika teknikari ingeniaria.

Syswin, LSS, Omrom automaten programazioa eta Telemecanique-en ezaguerak.

Urola Kosta edo Deba Behean bizitzea.

• Eskaintzen da:

Kontratu mugagabea egiteko aukera

Eskaintza hauetako bat interesgarri gertatzen bazaizu eta lortzeko aukera egin nahi baduzu, gogoan hartu eskaintzaren erreferentzia eta hautagai moduan sartua izatea eskatu Zumaiaiko Institutoko Langaiko arduradunari (943-860809 edo 943-860810)

CROISSANTERIA

pizzak
hanburgesak
bokatak...

Marina

Baltasar Etxabe, 2 TEL: 943 860719

ile-apaindegia

Maxi

Solarium

ETXEZARRETA, 9
TEL: 943 86 10 21

MENDI - ONDO C.B.

ELEKTRIZITATEA

Urola Plaza, 21
Tel. 943860074 - 943861569

Oier Aizpuruak brontzea Sevillako Mundialetan

Oier Aizpurua piraguista zumaiaarak berriro ere emaitza bikainak ekarri ditu etxera. Oraingoan Sevillan izan berri den piraguismoko Munduko Kopan.



Antxoka Agirre

Munduko Kopa honetan parte hartzea handia izan da, 24 herrialdetako piraguitak izan baitira bertan, kontinente guztietakoak, eta maila ere altua Sydneyko joko olinpikoetako eta azken mundialetako dominen irabazleek ez baitute hutsik egin.

Oier hiru probatan aritu da, hirurak ere K-4an. 1000 metrokoa, 500 metrokoa eta 200 metrokoa. K-2arekin ezin izan du parte hartu, taldea osatzerakoan arazoak izan baitziren eta K-4ean parte hartzearekin ere inkompatibilitateak egon baitzitezkeen.

1000 metroko proban zazpigarren postua eskuratu zuen. Azken

mundialean brontzea eskuratu zuten errumaniarrek irabazi zuten proba; bigarrenak, berriz, Sydney-n brontzea lortu zuten poloniarrek izan ziren. Horiengandik lau segundo eskasera gelditu zen Oier. 500 metroko distantzian ere zazpigarren gelditu zen zumaiaarra; berriro lehen postuak errumaniarrentzat eta poloniarrentzat izan ziren.

200 metroko proba izan zen, azkenean, Oier Aizpuruari domina eman ziona. Brontzearen jabe egin zen, urrezko dominatik ehunetako gutxira eta zilarrezkotik milareneko gutxira.

Dagoeneko Oierren balentrietara nahikoa ohituta gauden arren, emaitza oso garrantzitsua dela azpimarratu behar da. Munduko Kopa batean domina bat lortzea ez da edonoren esku, nazioarteko potentzia guztiek hartzen baitute parte txapelketa honetan. Zumaiaarrenak are eta meritu handiagoa dauka, gainera K-4an astebete bakarrik entrenatuta joan baita mundialera, behar bezala preparatu eta akoplatzeko denborarik gabe.

Orain Sevillan kontzentraturik dago berriro, selekzioarekin eta Itsas-Gainekin dituen probak prestatzen.

Gogoratu beharra dago, baita ere, piragua berri bat erosten lagunduko dion sponsor bat aurkitu nahian dabilela Oier. Orain daukan piragua ez da punta-puntakoa eta bere arerioekin berdintasunean lehiatzeko berria behar du. Herriko enpresaren batek laguntza bat eman nahi izango balu, Itxas-Gainekin kontaktuan jarri behar du. Oierrek hori eta gehiago merezi du.



METRO
taberna

ogitartekoak
pintxoak

Upela plaza, 7
tel: 943 862620

Nikol  Enea

TABERNA

Amaiako plaza

Aita Marik Gipuzkoako Txapela lortu du traineriletan



Trainerilen denboraldi bikaina egin du Aita Marik, estropada guztietan mutur-muturrean ibili da, eta iaz bezala Gipuzkoako Txapelketa irabaziz eman dio errematea.

Maiatzaren 20an, igandean, Getariako uretan jokatu zen Txapelketa. Bezperan jokatu zen ligako azken estropadan eman zuen ontzi zumaia, Oriorengandik hiru segundo eskasera gelditu baitzen, eta bat baino gehiago iazko garaipena errepika zitekeela pentsatzen hasita zegoen.

Xabier Zulaika, Xabier Bereziartua, Jose Felix Zubizarreta, Jokin Urkidi, Jurgi Lafuente, Iñaki Unanue eta Xabier Eizagirrek osaturiko ontziak lehia estua izan zuen estropada guztian zehar Orioko zazpikotearekin. Lehenengo ziabogara Aita Marikoak oriotarrak baino bi segundo lehenago iritsi ziren; bigarrenen ere eurak sartu ziren lehenengo eta ordura arteko aldea segundo batean gehitu zuten, baina hirugarren luzean Oriok hartu zuen aurea eta azken txanparaino ez zen erabaki Txapela nora joango zen. Azkenean gorriak pozez zorutzen eta oriotarrak bigarren postuarekin konformatu behar.

Jubeniletan, berriz, Orio izan zen jaun eta jabe, baina Zumaia mutilek ere paper txukuna egin zuten.

Euskadiko Txapelketa

Gipuzkoako Txapelketa irabazi ondoren esperantzarik bazegoen arren, Zumaia zazpikoteak ezin izan zuen garaipena errepikatu, astebete geroago Mundakako uretan izandako Euskadiko Txapelketan. Bizkaitarrekin egin zuten topo.

Larunbatean, tandak erabakitzeko egin zen estropadan, bigarren egin zuten Aita Marikoek, Bermeorengandik lau segundora. Igandeko estropadan bi ontzi horien arteko lehia aurreikusten zen eta halaxe izan zen lehen luzean. Bi ontziak turboa jarrita irten ziren Zumaia Bermeorengandik segundo bakarrera pasa zen lehen ziabogan. Bigarren luzearen erdi aldera, ordea, bermeotarrek ihes egin zieten eta pixkat behera etorri ziren Aita Marikoak. Azkenean laugarren sartu ziren, Santurtzikoko Karmeleko Ama trainerilak eta Donibanekok atzetik aurrera pasa baitzituzten. Jubenilek ere laugarren egin zuten. Estropada honen ondotik trainerila denboraldia bukatutzat eman dute gorriek, Bermeok bezala uko egin baitiote Espainiako Txapelketan parte hartzeari.

SAILKAPENAK

Senior maila

1.	Zumaia	14:23.
2.	Orio	2''ra.
3.	Donibaneko	19''ra.
4.	Ur kirolak	24''ra.
5.	Getaria	27''ra.
6.	Trintxerpe	29''ra.
7.	Koxtape	46''ra.
8.	Zarautz	1:20''ra.

Jubenil maila

1.	Orio	14:57.
2.	Zarautz	23''ra.
3.	Zumaia	28''ra.
4.	Trintxerpe	1:17''ra.

SAILKAPENAK

Euskadiko Txapelketa (senior maila)

1.	Bermeo	13:55.
2.	Karmeleko Ama	10''ra.
3.	Donibaneko	10''ra.
4.	Zumaia	12''ra.

Federazio saria

1.	Isuntza	14:13.
2.	Portugalete-San Nicolas	4''ra.
3.	Orio	9''ra.
4.	Arkote	14''ra.

Euskadiko Txapelketa (jubenil maila)

1.	Orio	14:31.
2.	Zarautz	15''ra.
3.	Itsasoko Ama	34''ra.
4.	Zumaia	44''ra.

OPTIKA ZUMAIA



Txomin Agirre kaia, 6
Tel./Faxa: 943-143057
Z U M A I A



INMOBILIARIA 943 143361
BIDAIK 943 143323
Ortega y gasset, 1



Enbera Kalea 20750 ZUMAIA (Gipuzkoa) Tel. 943 86 19 73

Oscar Castro

“Plantilaren planifikazioa ez da egokia izan”

Berriro ere preferentetik eskualdeko lehen mailara jaitsi da Zumaia. Azken denboraldi hauetan ‘talde igogailu’ bihurtu zaigu, gora eta behera. Entrenatzailearekin aritu gara zergaitiez.

Nola asimilatu duzue jaitsiera?

Min egiten dizu. Indar guztiekin borrokatu, beste gauza batzuk alde batera utziz, ordu mordo bat sartu, bai mutilek eta bai nik, gero emaitza txarrak eskuratzeko. Gainera, denboraldian zehar zulotik kanpora egon gara gehienez eta pixka bat ustekabean harrapatu gaitu

Zein dira, zure ustez, jaitsiera eragin duten arrazoiak?

Beti arrazoi bat baina gehiago izaten dira, elkar gurutzatzen diren gauza mordo bat, baina nire ustez arrazoi nagusia taldearen diseinua izan da. Ideia igoera lortu zuen taldeari jarraipen bat ematea zen, eta errefuertzat handirik ez zen ekarri. Liga oso lehiakorra eta luzea izan da. Batzuek mailarako jauzia nabaritu dutelako, bestea lesionatua zegoelako, bestea kanporatua eta pare bat forma eskasagoarekin, boladatan hamahiru-hamalaue lagun baino ez ditugu eduki jokatzeko moduan.

Gainera momenturik txarrean sortu zitzaizkigun arazoak. Liga goiko postuetan hasi ginen eta gero denboraldi gehiena hamabigarren eta hamalagarren postuen artean egin dugu. Martxoan Mutrikura sei puntuko aldearekin joan ginen eta talde hori

zen jaitsiera postuetan zeudenetatik lehena. Irabazteko moduko partidua egin genuen baina penalti batekin galdu. Hurrengo partidua jaitsiera postuetan zegoen Seguraren aurka. Bi eta huts irabazten, hirugarren gola bi aldiz anulatu eta azkenean berdinketa. Hor sartu ginen zuloan eta justu hortxe hasi ziren arazoak. Hasieratik behean hasi bagina, abenduan neurriak hartuko genituen beste talde batzuek egin duten bezala, baina azken unean izan denez buelta eman ezinda gelditu gara.

Izan al da alderdi positiborik?

Alderdi humanoia beti bezala oso positiboa izan da, eta oro har alderdi negatiboak baina pisu gehiago dute niretzat positiboek, baina historikoki geldituko dena emaitza da, jaitsiera. Gero klub mailan denetarik egon da. Jubenilak oso gaizki ibili dira eta mailarik baxuenera jaitsi dira, lehenbailehen igo beharra dago, baina kadeteak berriz oso ondo ohorezko mailara igo dira. Kostako zaie mantentzea, baina liga interesgarria da mutilek asko ikasteko. Neskek ere, oso talde gaztea izanda, paper txukuna egin dute.

Urteak dira taldea bertan behar bezala asentatzen ez dela. Preferente klubari



handia gelditzen zaiola esan behar al dugu?

Ez, ez. Zumaia-kori dagokion maila preferentea da. Kontua da planifikazio egokia behar dela eta egitura osatu behar dela maila horretan arazo gutxiago izateko.

Datorren urterako ari gara egitura aldaketa honetan lanean. Bigarren ekipoa sortu nahi dugu, bigarren erregionalean jokatzeko, azken urteotan jubeniletatik igo izan den jendea eta beterano batzuekin osatua. Horrela hogeitamabost-berrogei laguneko giza talde bat izango genuke eta lehen taldeko entrenatzaileak bigarren taldekoak igo ahal izango lituzke. Bestalde, lan arrazoiengatik eta beste bati lekua egitearren, entrenatzaile postua utzi eta kirol koordinatzaile bezala arituko naiz ni. Bi talde osatzeko jokalariek eta entrenatzaileak topatzea izango da nire lehen lana eta gero kategoria guztietako entrenatzaileei eta zuzendaritzari laguntzea. Aurrera begira jubeniletan ere bi talde egitea ere gustatuko litzaiguke.

AROTEGIA

Urola 2000, s.l.

- *Eraikuntzen akabera eta dekorazioa
- *Baserrien zaharberritzea
- *Enbarkazio konponketa
- *Ate, zokalo tarima eta pertsianak
- *Armairu enpotratuen aurrealdea
- *Aroztegi metalikoa

Trenbide kalea, 1 Tel. 943143505

AITA MARI KAFETEGIA

Julio Baobide, 15 Tel. 943 861345 Zumaia

ATERPE

OPARIAK ETA DEKORAZIOA

Erribera kalea, 6
Telefonoa: 943 86 53 87
30750 ZUMAIA (Gipuzkoa)

Arte tailerreko ikasleen koadroak



Duela sei urtetik hona pintura ikastaroak eman izan dira Forondan. Irailetik maiatzera bitartean irauten dute ikastaroek, Ander Ormazuri artista zumaiaarrak ematen ditu, eta bi taldetan banaturik aritzen dira ikasleak: batzuk astelehen eta asteazkenetan sei eta erdietatik zortzietara eta besteak astearte eta ostegunetan hiruretatik lau eta erdietara. “Ikastaroez gain, arte tailer bezala ere funtzionatzen du Forondan daukagun lokalak, ikasleek liburutegiaren ordutegian irekita baitaude sartu eta beren kasa aritzeko”, esplikatu digu Anderrek.

Aspalditik gordetako afizioa, marrazkigintzarena, praktikatu eta teknika pixka bat hartu nahi duen jendea da bertara hurbiltzen dena. “Askok txikitat dakarte zaletasuna, baina ez dute teknika hartzeko aukerarik izan eta

ikasteko gogo handiarekin etortzen dira”, komentatu digu Anderrek. Berrogei urteen bueltan dabilen jendea omen dira gehienak, eta emakumezkoak. “Ikastaro guztietan gertatzen da, konplexu gutxiago dituztelako edo, ia denak emakumezkoak izatea. Aurten ere hogeita hamahiru ikasleetatik hiru bakarrik dira gizonezkoak”, dio. Ez dute gizonen falta sumatzen, ordea. “Oso giro ona daukagu. Kurtso hasieran eta bukaeran afari bana egiten dugu, urtebetetzeetan ere xanpaina ekartzen dute, kafe makina badaukagu deskan-tsuetarako...”, kontatu digu.

Instrumentu sinpleenarekin, arkatza-ekin, egiten dute inimizia. Irakasleak ezartzen dizkien objektuak marrazten dituzte, eskua pixkat egin eta perspektiba eta formaren inguruko oinarritzko zantzu batzuk eurengana-

tzeko. Gero karbontziloari heltzen diote, soltura pixkat hartzeko, eta kolorezko margoekin aritzen dira hurrena. Lientzorako jauzia hiru hilabete eman ondoren egiten dute, normalean olio pinturan aritzeko, bestelako teknikekin ere probak egiten dituzten arren. “Hortik aurrera gaiak eta estiloa libreak dira, norberaren gustua bezala”, dio Anderrek.

Ikastaroez gain, arte tailer bezala ere funtzionatzen du Forondan daukagun lokalak

Urtean zehar egindako lanekin erakusketa antolatu dute Oxforren, maiatzaren 22tik ekainaren 3ra bitartean. “Pena zen egiten zen lan guztia lokalean edo norberaren etxean gelditzea eta duela hiru urte lehenengo erakusketa egitea erabaki genuen”, dio Anderrek. “Ikasleentzat sari bat da, bakoitzak bere bi lan onenak jarri ahal izan ditu, eta jendearentzat ere polita izan daiteke nola ikasten ari diren ikustea”, jarraitu du. Ikasleen progresioa dexentekoa omen da, batik bat ikastaroetara urte bat baino gehiago azaldu direnena. “Batzuk saltzera ere iritsi dira”, seinalatu du Anderrek. Erakusketara azaldu den jendea ere, batik bat ikasleen ezagunak, pixkat harrituta gelditzen omen dira dagoen mailarekin. Ezkutuko grinaren fruituak.

Endaia zumaia

**TV-VIDEO-HIFI
ELEKTROGAILUAK
SUKALDE ETA BAINUKO ALTZARIAK**

ERRIBERA, 8 943 861694

Mota guztietako altzariak

Xanti Osa

Amaia plaza, 7
tailerra: 943 860914
denda: 943 862385

**TOMAS
TABERNA**

- APARTAMENTUAK -

- menuak
- plater konbinatuak
- pintxoak eta ogitartekoak

E. Gurrutxaga plaza 943 86 19 16

ekaina agenda



XIII. ARGAZKI LEHIAKETA

Aurtengoan ere Zumaia-ko Argazki Lehiaketa antolatu da. Aurtengoan ez da zumaia-rrerentzat espreski antolatuko lehiaketarik izango. Lehiaketa honetan Euskal Herriko edozein zaletuk har dezake parte. Argazkiak paperean, zuri-beltzean aurkeztu beharko dira. Laborategiko edozein teknika erabil daiteke. Gaia librea izango da eta ezingo da aurkeztu beste inon saritutako lanik. Irabazleak aukeratzeko epaimahaia argazki munduko pertsona adituez osatuko da, eta bere erabakia aldaezina izango da. Erabakia uztailaren 5ean emango da ezagutzera. Aurkezten diren argazki onenekin erakusketa egingo da Forondan, uztailaren 5etik 20ra bitartean. Lehiaketara aurkezten diren lanak honako helbidera bidali beharko dira: Foronda Kultur Etxea. 20750 Zumaia. Argazki bakoitzaren atzean lanaren izena, egilearena eta NAN zenbakia, helbidea eta telefonoa jarri beharko dira. Hiru sari banatuko dira: lehenarentzat 50.000 pezeta eta garaikurra, bigarrenarentzat 40.000 pezeta eta hirugarrenarentzat 30.000 pezeta.

JULIO MENDIKUTE EIBARTARRAREN ERAKUSKETA FORONDAN

Julio Mendikute eibartarraren argazki erakusketa ikusgai dago egunotan Foronda kultur Etxean. Erretratu estandarretatik abiatuz, laboratorioran landutako esperimentazioan oinarrituta sortu duen emaitza aurkeztuko digu Mendikutek zuri-beltzeko 30 argazkiotan. Batzuetan errebelatzeko likidoa erabili du trazoak margotzeko paperaren gainean, eta beste-tzuetan, akuarelarekin koloreztatu ditu aurpegiak. "Mutantes" erakusketa **Forondan** izango da ekainak 6tik 23ra bitartean.

1

ostirala

MUSIKA

Musika Eskolako
kurtso
amaierako
kontzertuak
19:00etan
Maria eta Josen

8

ostirala

MUSIKA

Beheko Plaza
abesbatzaren
kontzertua
19:30etan
Aita Marin

14

osteguna

ZINE FORUM

SAIOA

"South Park"

22:15etan

Aita Marin

15

ostirala

FESTA

Ludotekako
ikasturte
amaierako festa
20:00etan
Ludotekan

15

ostirala

ANTZERKIA

Ander Lipus-en

"Ardoaz"

monologoa

22:30etan

Oxford aretoan

Esaera batetik jaio zen proiektua: "Egiarik handienak undergroundean izkutaturik daude". Hala, hiru pertsonaiatan gauzatzen da: mozkorra, umea eta eroa, egia handi horien esatariak, alegia. Lau idazle garaikideren testuetaz baliatzen diren bakarrikzeta antzezlanak: *Josu Lartategi* (Ardoaz), *Sara Saghi* (Un Minuto), eta azkena *Peru C. Saban* eta *Pedro Blanco* (Mis rarezas dirías tú). Hiru bakarrikzeta horiek osatzen dute Underground-en Trilogia. **Ardoaz** trilogiaren bigarren partea da. Eta hurrengo erreferentzietan oinarritu da:

- **J.K Toole-en** "La Conjura de los necios", eta bertan autoreak deskribatzen duen Ignatius Reilly pertsonaia printzipalaren erredua.
- **Leopoldo M° Panero** poeta ezagutzeak.
- **Charles Bukowski**-ren nobela eta poesia.

OSTOLAZA
BURDINDEGIA

Aita Mari auzategia, 10 behea
tel: 943 86 16 66
e-mail: denda@ostolaza.com
www.ostolaza.com

NARRONDOS
TABERNA

Goizeko 5:30etatik
astelehenetik larunbatara
PINTXO eta OGITARTEKOAK
TEL: 943 86 24 90

ERRIBERA KALEA, 15 943 143435

lore-denda Iris

Kanpoko eta barruko
landareak

Haziak, animalia txikiak
eta osagarriak
(janaria, korreak, janari-ontziak)

Fitxa-teknikoa

Izenburua: Quercus endorpha

Taldea: Oreka Tx. Harkaitz

Martinez eta Igor Otxoa

Argitaletxea: Elkarlanean

Urtea: 2001



Txalaparta finena

60ko hamarkadaren bukaeran Beltran eta Artzek berreskuratu zutenetik etengabeko zabal-kundea eta bilakaera izan du txalapartak. Desagertzeaz zegoen musika tresna gure ospakizunetan ohiko bihurtu da, eskolak ireki dira, material eta erritmo berriekin esperimentatu da, eta taldeak eta ikuskizunak sortu.

Diskografia, ordea, oso motza da; txalaparta oinarritzat duen disko bakarra argitaratu da urteetan, Andoni Aleman eta Jesus Arzerena, 1986an, eta urteetan hainbat muga ikusi izan dira: txalaparta astunegia dela disko baten ardatza izateko, ezberdinegia beste musika tresnekin behar bezala nahasteko, etab.

Oreka Tx-ek muga horiek guztiak hautsi ditu bere lehen lanarekin. Kepa Junkeraren ukituarekin (bederatzi kanturen egilea eta produktorea bera da) eta Ibon Koteron, Justin Vali, Glen Velez, Michel Bordeleu, Mikel Laboa eta Phil Cunningham-en kolaborazioekin puntako musika etnikoa, edonorentzat gustagarria, lortu dute, txalaparta, aire, soka, perkusio nahiz ahotsekin maisutasunez nahastuz.

Melodiari eman nahi izan diote garrantzia eta horretarako egurrak afinatu eta eskalan jarri dituzte. Zenbait kantutan txalaparta xilofonora gehiegi gerturatu ez ote duten ere pentsa daiteke, baina oro har oso lan ona da, batik bat Glen Velez perkusionistarekin batera eginiko kantuak. Esan beharra dago, baita ere, Nacho Duatok Espainiako Dantza Konpainiarako egin duen azken koreografia disko honetako musikan oinarritu duela.

ZINE FORUM



Ekainak 14, osteguna
South Park

Zuz: Trey Parker
(Marrazki bizidunak)

Zine Forum denboraldiari amaiera emateko, hona hemen marrazki bizidunen luzemetraia birrintzaile bikaina, Matt Stonek eta Trey Parker-ek telebistarako sortutako animaziozko serie ospetsuan oinarritua. Haien espiritua urratzailea izanik, lan hau ere izaera berekoa da: hautsi egiten du. Luzemetraian, Estatu Batuetako herri beti elurtu eta urrun bateko gazte koadrila izugarri baten eguneroko bizimodu delirantea azaltzen digute.

Musikal zoro baten parametroei jarraiki, abesti nahikoa xelebreak daude sartuta, besteak beste, "Uncle Fuck" ("Osaba larri jotzailea"), "Kyle's Mom's a Bitch" ("Kyleren ama emagalduta da") edo Oscarrerako proposatu zuten eta Robin Williams-ek Hollywood-eko Akademiaren sari banaketan abestu zuen "Blame Canada" ("Bota errua Kanadari"). Filmaren hasieran, munstro txikien koadrilak film kanadar bat ikustea erabakitzen du, baina adingabeek nahitaez helduren batek lagunduta joan beharra daukate zinemara sartu ahal izateko. Egoera horretatik abiatuta, nahaspila etorriko da: ikaskideek zinema aretora jarraituko diete, horien gurasoak sumindu egingo dira eta Ameriketako Estatu Batuek Kanadari gerra deklaratzeko eskatuko dute. Handik gutxira gerra hori piztuko da eta Baldwin anaia zinematografikoak hil egingo dira. Irudimenaren zoramen horretan Bill Gates, Sadaam Hussein eta Brooke Shields ere agertuko dira.

Teknika zahar bezain eraginkorra erabiliz, Stone-Parker bikoteak erraz identifikatzeko moduko pertsonaiak utzi dizkigu betiko: Cartman lodikote nazkagarria, Kyle judutar argia, Stan (koadrillako burua; bere akats nagusia zera da: bere ametsetako Wendy Testaburger maitea ikusten duen bakoitzean gainera gonbitoak botatzea) eta hainbat aldiz hildako eta berpiztutako Kenny. Horra hor ohiz kanpoko koadrilako kideak, portaera eta hizkera dela kausa hainbeste eztabaida bizi eta laudorio eragin dituen.

Hitz gutxitan, primeran pasatuko duzue produktu oso gomendagarri eta berezi hau ikusiz.

AR Icardo J. Azcue Yeregui
Abokatu + Asegurak
Pirka Administrazioa

txomin aguile 4, beheak
20.750 zumala (gipuzkoa)
E-mail: iazcue@euskalnet.net

Tel. 943 862651
Fax: 943 862748

BIDEO-KLUBA
TREBE

Izuga, 1 beheak 2
tel: 943 86 53 101

ALDIZKARIAK... JOSTAILUAK

"Muagi"

- ERREHABILITAZIOA
- KIROL MEDIKUNTZA
- FISIOTERAPIA

Aita Mari 3.blokea
Tel. 943 86 16 91

RPS: 034/97

Erraz ezagutuko nauzu.

Sarritan elkarren albotik pasatzen Sgara eta ikusten nauzu, nahiz eta kasurik egiten ez didazun, Paolaldera paseatzera joaten zarenean, okindegiaren atean, Erribera kalean atzera-aurreran edo Zubi Txikian, semaforoaren zain gaudenean. Batzuetan egun berean behin baino gehiagotan.

Lehengoan, adibidez, anbulatorioaren inguruan ikusi zintudan –bai, handitzekotan dabiltzan eraikin gaixo horretan– eta ez zeneukan itxura onik, zimel-zimel, lainotuta, eta egon nintzen galdetzekotan zer ote zenuen, non zegoen bizi-poza eguzkia bezala distiratu ohi duen pertsona. Isildu egin nintzen, ordea, ohi bezala mututu, txintik esan ez, ezpainak lerro.

Izan ere, askotan elkar ikusiagatik, inoiz ez diogu elkarri hitzik egin. Baina ez da aukerarik ez daukagulako, ez horixe.

Eta ez da nik nahi ez dudalako, deseatzan bainago, edozein aitzakia dela medio, bion arteko lotura ezartzeko eta estutzeko, komunikazio-zubia eraikitzeko.

Adibidez, egunen batean gustura asko galdetuko nizuke zer ordu den, edo zigarro bat eskatuko (“kaguen, paketea etxean eta hemen inguruan ez dute inon ere saltzen”), eta behin elkarriketaren hariari helduz gero, prest nago edozein gai hartu eta isildu gabe txor-txor aritzeko, adibidez, arraunlariek Mundakan eginiko estropadaz, edo Erreala eta Athleticeen partiduaz (ai, ama!, ez ahal dira




jaitsiko!), edo azkenaldian dabilkigun eguraldi txoro eta eguzki erreaz. Prest nago elkartzen garen lekutik abiatu eta zurekin ibiltzeko Talaiperaino, okindegiaren aurrean gelditzeko edo Erribera kalea amaitu eta Amaiaiko edo Beheko plazara iristeko, nik nahi baino lehenago zure norabidea okertzeko unea iritsi eta nire nahi puztuz husten den bitartean.

Pena da. Hainbeste aukera eta ez diogu elkarri ezer ere esaten...

Nik, behintzat, hurrengoan, elkarren albotik pasatzean, begi-keinua egingo dizut, jakin dezazun zein naizen. Hitzik esaten ez badidazu ere, irribarre egingo al didazu, behintza? Zure hortz zuriak ikusi eta trikiti-soinuaren teklen

alaitasuna ekarriko didate gogora: eta hurrengoan bai, hurrengoan, eskumurturrean erlojua eduki arren, zer ordu den galdetu eta denbora betiko geldituko dut; edo zigarro bat eskatuko dizut, zuk emandako suaz piztu eta keaz maitasunezko bihotzak egingo ditut, zuk ezaba ditzazun.



ILE APAINDEGIA

herea
uranga

Etxezarreta, 19 Tel. 943 862342

GIZARTEKINTZA zentru soziala

KAFETEGIA - JATETXEA

- Eguneko menua
- Plater Konbinatuak
- Kaxuelitak
- Kuadrillentzako afariak

• denontzat irekia



Gipuzkoako Foru Aldundia
Gizarte Zerbitzuetarako departamentua

Eusebio Gurrutxaga plaza, z/g Tel. 943 86 17 00



ZERBITZU OFIZIALA

ETXEZARRETA, 6
ZUMAIA
TEL. 861078

KALEFAZIO ETA GAS INSTALAZIOAK


PRESUPUESTOAK ZURE NEURRIRA
EGITEN DITUGU.
ESKA EZAZU ZEUREA INOLAKO
KONPROMEZURIK GABE

Zatoz eta galdetu

GAS NATURALA

BUTANO

PROPANO



ERROTA



OPIL OKINDEGIAT

*era guztietako tarta
eta pastelak*

LABEA:

Santixo auzoa TEL: 943 86 00 00

Erribera, 2 TEL: 943 14 30 01

Juan Belmonte, 5 TEL: 943 86 03 00

Basadi, 4 TEL: 943 14 32 21

P. Etxezarreta, 42 TEL: 943 86 25 28

Alai, 8 TEL: 943 86 25 60